

Landa eremua Azpiegituren bidegurtzean

Luku herria • Araba

«Proiektu guztiak eginez gero, herriak desagertzera joko luke»

Luku Arabako iparraldeko 65 biztanle inguruko herri txiki bat da. Leku estrategikoan dago, eta azpiegiturarako eremu ezin hobea bihurtu da azken urteotan. Alabaina, proiektu handienak etortzekotan dira (Eibar-Gasteiz, AHT), eta oraindik proiektu baino ez diren guztiak eginez gero, herria desagertu egigo litzateke, bertako biztanleen arabera.


Txema Lopez Legazpin jaio zen, baina Lukun 14 urte daramatza. Ama bertakoa du, eta hark bertara bizitzera joatea deliberatu zuen. Herri-

ko Administrazio Batzordeko bozeramailea da, eta zalan-tzaz beteta ikusten du etorki-zuna: «Egun N-240 autobide-a dugu; herriaren bestal-detik Eibar-Gasteiz pasatuko litzateke; bien arte-an AHT, eta horietaz gain, herritik pasatzen ari diren gas-bide guztiak eta urezta-pen zerbitzurako tutuak... Herriak zulo batean geratze-ko arrisku ederra du».

Eibar-Gasteizko lotune nagusia Lukun jartzeko asmoa dute, proiektuaren arabera. Alegia, autobideko ordainlekua, irteera eta

sarrera izango litzuke, eta lotunea bertan A-68rekin bat egiteko egin nahi dute. Ingu-ruan dauden zereal sail handiak suntsitu-ko litzukete azpiegitu-ra horiek, eta ingurue-tako mendietan ere kalte ekologiko nabar-menak eragingo litzu-

kete; gainera, abereentzako lurak nabarmen gutxituko lirateke. Herriko Kontzejuak ez zion eman baimenik Foru Aldundiari autobideko lurak aztertzen hasteko. Ondoren, proiektua gelditu



JOSEBA OLALDE

Txema Lopez, Luku herriaren aurrean.

dela dio Lopezek, eta horrek itxaropenerako zirrikitu bat irekitzen du herriarentzat. «Aspalditik dator Maltzagako proiektua, eta sekula ez dira hasi. Horregatik, aspaldiko otsoa da, badatorrela esan

eta sekula iritsi ez dena. Beraz, itxaron egin behar da». Dena dela, Lopezek argi dauka kontu bat: «Proiektu diren guztiak egingo balira, herriak desagertzera joko luke».

Goiazberri baserria •

Martutene (Gipuzkoa)

«Urte gutxitan dena desagertuko da hemen»



EDURNE KOCH

Jose Mari Etxebeste, Martuteneko bere baserrian.

Euskal Herrian Administrazioak egindako azpiegitura planak neka-zaritzaz bereziki astinduko duen ere-murik bada, hori Urumea bailara da, Hernanitik Donostiarako zatian. Zortzi urteko epean hiru azpiegitura itzel egiteko asmoa dute: Urumeako autobidea, Donostiako ingurabidea eta Abiadura Handiko Trena. Gipuzkoako barazkizaintzarako lurrik oparoena omen den hori «pikotara» doala argi du Jose Mari Etxebestek, Martuteneko Goiazberri baserriko nagusiak.

Ehun urte baino gehiago eman du Etxebesteren familiak Martute-neko baserrian, maizter, duela hamar urte arte. Orain, guztiz berrituta eta harrizko baserri doto-rea dute, eta barazki- eta lore-zain-tzarako erabiltzen dituzte lursail zabalak. Gipuzkoako Foru Aldun-diaren asmoak betez gero, urtebete

barru orain baserria eta baratzak dauden lurre-an ez da ezer izango, indus-makinek mugitu-tako lurra baino ez. Inguruan dozena bat baserri kaltetuko ditu autobideak. Baserri-tarrak ez dira beso guru-tzatuta geratu, eta proiektu alternatibo bat prestatzeko lan talde bat kontratatu zuten. Orain, proiektua buka-tua dute, eta laster jaki-naraziko dute jendau-rrean.

«Pixka bat goragotik doa, eta gutxienez etxebizitzarik ez litzateke bota behar izango. Gainera, beste-ak baino kalte pixka bat txikixea-go egingo lioke ingurugiroari». Alternatiba serioa da, eta izan dezakeen harrerari dagokionez, baikor da Etxebeste. Hala ere, momentuko irtenbidea izango litzateke bakarrik, geroago beste obra erraldoiak etorriko baitira. «Hemen ez dugu irtenbiderik. Hemen baila-ran beste txokoren bat izango balitz, bada, joango ginatke, baina hau desagertuko da erabat urte gutxitan», dio etsipenez. Semeak ingeniari agronomoko lizentziatura lortu du egunotan, baina ospatzeko gutxi dute Goiazberri. Hernani aldean hasiak diren lanek agerian uzten baitute errealtatearen gordintasuna, etorkizuneko bidezko proiektu ilusiozkoak erabat zapuz-

Mendizorrotza baserria •

Ibarra (Gipuzkoa)

«Hasieran ez genuen sinesten»

Duela bost bat urte jakin zuten Mendizo-rrotza baserrikoek Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu bat zuela Tolosa eta A-68 autobia lotzeko, Ibaratik barrena. Proiektuak bete-bete-an harrapatzen zituen Mendizorrotza base-rrikoen lurak, etxetik 20 bat metrora igaro-tzen baita lotune proiektua. «Guk ez genuen sinestu hasieran. Gainera, beharrik ere ez genuen ikusten. Gero isildu zen pixka bat, eta hor geratu zen», adierazi digu Jose Francisco Etxabeguren, baserri-ko semeak. Oraingoz, lurra arbaso-ek utzi bezala dutela, belarra mozt-en ari dira familiako guztiak, egu-raldi ederra lagun.

Duela urtebete errepidearen aurreneko faseko lanak hasi ziren, Tolosako industriadetik hasten den zatia hain zuzen ere. Bigarren faseko lanek kaltetuko litzukete Etxabegurendarrak, baina bigarren faseko lanak oraindik ez dira hasi, eta lurra desjabetzeko ere oraindik ez dira harremanetan jarri beraie-kin.

Proiektua aurrera zihoala ikusi-rik, sinadurak bildu eta mobiliza-zioak egin zituzten Ibarra. Alaba-na, Administrazioak esan zuen aurrera segitu behar zutela, lotura



PABLO S. QUIZA

J. F. Etxabeguren, autobidea nondik etorriko den erakusten.

beharrezkoa zela Tolosako indus-trialdeko enpresek aterabide azka-rra izateko Iruñera doan autobia.

Baserritik gertuko lurra erditik ebakiko du asfaltozko bideak. Horrek kalte handia ekarriko die: «Lur gutxi dugu, eta, gainera, era-bat zatituta geratuko zaigu. Gana-duak libre ibiltzeko ere nahiko lan izango da». Diputaziora eta Udalera jo izan dute inguruko baserri-tarrak, baina ez diete kasurik egin.

Alabaina, Etxabeguren ez du galdu itxaropena: «Ez dago hain garbi egingo dutela. Alderdi politik batzuk mugitzen ari dira, eta tira, lehen bezain garbi ez dago behin-tzat». Aurreneko faseak gogor kol-patu ditu bi baserri, haien lur gunearen erditik igaro baita errepide-a. Haiei jadanik inork ez die egin-dako kaltea leunduko, baina Men-dizorrotzan itxaropena badute.